

GAZTE NAIZ

EGIA TA IPUINAK

La Habana'ko Erreboluziaren Bilkura bukatu ondoren, gauza bat agertu da nabarmen: Ameriketako komunista alderdiak batetik, eta Castro-zaleak bestetik, hasarretu egin dirala. Marx'en teoria denek ahotan eta bihotzetan erabiltzen arren, zatiketa sakon bat obratu da denen aurrean: Castro-zaleen ustez, komunista alderdiak (eta U. R. S. S., beraz) burgesu egin dira, eskubidatut, hondatu hitz batez. Komunista ofizialen ustez, aldiz, Castro-zaleak txoratu egin dira, zentzua galdu dute.

Aide huntatik, O. L. A. S.'koen iritziak eta Mao'ren iritziak ez dira arras desberdinak: La Habana'n eta Pekin'en komunista moskuzaleen, «saldukeria» aipatu da kupidarik gabe.

Bidezkoa ote da horrela mintzatzea? Nekez jar ditezke zalantzan Mosku'ren jokabidea ez dala ez erreboluziozale eta ez sozialista. Jakin dugunez, Mosku'ko gobernuak ehun milioi dolar bahitu dizkie 1966-ean Brasil'go militarrei; eta berrogei eta hamazazpi milioi dolar Txile'ko demokratia kristauei.

Txile'ko Frei'ren saioa giltzarri izan ditezke Hego-Ameriketarako. Frei lagunduz, Mosku'ko komunismorik gabeko soluzio bat aurki dedin laguntzen du. Johnson'ek baiño hobeki!

Baiña Frei'ren saioa, zenbait aldetatik behintzat aurrerazaleztat har baditezke (baiñan ez marxismo-leninismoaren aldetik!), zertan txalo ditezke Brasilia'ko gobernuak? Castelo Branco zana, jakina danez, erresuma-kolpe baten ondorioz nagusitu zan Brasil'ez; eta Joao Goulart eta Lionel Brizzola sozialistak zapalduz. Costa e Silva mariskala abillago da, baiñan ezkerter izena ez du inolaz ere merezi. Gobernu horiek lortu dituzte Moslu'tik, halere, sei milia milioi pesetako bahitura bati Denbora berean, Brasil'go Ekialdean, gerillak ari dira jo-ta-ke; eta Helder Camara apezpikuak Brasili'go egoera ezaguturik, ez ditu iskillutan altxa diranak kondenuatu nahi, bere burua Brasilia'ko gobernuari buruz oso gaizki jarriaz.

Komunista alderdiek, horrela, partida galdua dute: bai La Habana'n eta bai Amerika guzian. Hau gauza agerria da denen ustez.

Baiña gure galdera hau da; nola gertatu da hori?

Nola gertatu dan, noski, komunista ez geranok ondo dakigu: Lenin'en erreboluzioa, BESTE ERREBOLUZIO BAT izan da, haundienetarik izanik ere; eta gaiferako guziak bezela, usteldu egin da. Politika-aparato bat nagusitu da erreboluzioaz; eta tresna zana, helburu bihurtu da.

Zer errepika dezateke marxista-leninistek? Stalin'ek hogeitaz bost urtez jokatu zuen baiño gogorkiago ezin joka zitekean: Stalin'en gogortasuna gogorkeria zala gaur denek; eta komunistek berek hau aitortu zuten 1957-an. Nola izan ditezke, marxismo-leninismoaren ortodoxian, Erreboluzioa ia hutsetan elditzea industriatzeaz kanpo? Nola uler ditezke erresuma osoa burokrazia eskuindar baten eskuetan erortzea, eta atzerri-politika oportunisto eta abilkeria hutsa izatea? Letra haunditan idatzi behar zan Erreboluzioa, beste erreboluzio bat izan da azkenean, aurreko guziak bezela aurrerako! dudarik gabe bere garaiean eta bere sorterrian, eta hortara onuragarri eta beharrezkoa. Baiña ipuifuez eta ametsez gañezka bete, eta negarretan gesaldua.

Txina'ko berriek fenomenu berbera erakusten dute.

Nola siñistuko dugu gaur guk, beraz, 1867-an etsipenean eta nahi-ta-eko kondaira-itxutasunean, siñets zitekean Erreboluzioa? Nola esan dezateke gure arteko sasi-aurrerazale batzuk orain dala ehun urtez bezela pentsatuz aurrerazale-tasunaren punttan daudela?

Hauxe da gure arteko batzuk inolaz ere hausnartu nahi ez duten gogota latza. Baiñan egiaeren zerbitzutan egoteko, adiskideok (eta horixe da intelektuaren aginkizun nagusia), aurrez-aurre egia begiratzetik hasi behar dugu. Bestela ez dugu inoren errespetua merezi.

LARRSORO

Nora daramagu Euskalerrria?

Gizentzen ari da gure erria, baiña erriaren larrua berdira da. Onela parraitzekotan lertzeraiño iritxi gindezke ta ori izango litzake Euskalerrria'n suntsitzea. Nora jo orduan? Sendagilleagana. Baiña errien sendagilleak al daude? Nun?

Min-bizia ere zabaldu oi da; gizen du beste izateen meetzearekin. Eta Euskalerrria'ren gaurko gizen te onek min-bizieraren antza bait du.

Gure bizian sail batzuek kontsideratzen ditugu, zientzia bereziak aztertzen dituztenak. Ekonomia, Soziologia, Fisika, Kimika, Matematika, Politika ta abar. Zein da zientzia garrantzitsuna? Auskalo! Ontaz iritzi ez berdirak dira, gizakiaren pentsakerak ezberdirak diran bezelaxe.

Alemania'n orain urte gutxi Erhard jauna aukeratu zuten «Premier» bezela; ekonomista argitsuenetakoa zala geienak zekiten. Eta gero Estadu buruzagiaren lez zer egin zuen Erhard'ek? Ez zala politikari ona ikusi egin zan, teknokrata askoren aritzearekin batera. Ala gertatu zala, bai, geu esan bearrean arkitzen gera.

Ekonomia ez da miraritsua. Zientzia bezela bizitzaren zati bat artzen du kontuan; zati garrantzitsua, agian, baiña zatia ala ere. Bere zatiaren galetatik at, ongi ikusi gabe, itsuki ibiltzen da. auzo normala da, ez aritzea. aBaiña zarata ta abarots ikaragarri askoren ratean gauza normalak naasten eta estaltzen dira, gauza eznormalen azpian. Teknokrata askorentzat Ekonomia da zientzien erregia. Baiña neurrigabeko Ekonomi ori zientzi aul bat da. Ekonomi ori ez jakina da beste zientzien sailletan. Ekonomia'ren sailletik at sasi-jakintza da Ekonomi aunditza ori.

Kultura elbarri bat eratan eri gera gure errian. Iraupenaren burruka kulturen burruka izango da azkenean. Gerturik al gaude ortaroko?

Nun dago gure Unibersidadea? Nola izango gera gero unibersalak? Ez beintzat bestean laguntzagatik, laguntza orrek orain arte izan dan bezela irauten baldin bado.

Triste al da? Egia da. Kultura bideetan ez dago pesimismorik, egizalatasuna baizik. Egizalatasuna jakintzarekin pozik elkarzeta.

ARABARRA

G H E T O A

«Adiskide, ez adi ain fanatikoa izan, etzakela herria ainbeste maita, hire herriaG nerea ere bai noski, besteak bezelakoxea duk eta. Euskalerrria ilko balitz ere, bizitzen berdin jarraituko genikek. Askatasuna, esturktura aldaketa, gizarte berria...», dana amets utsa duk, kontrolik gabeko idealismoaren ondorena. Eta guztia itxiitara baten barruan bizi ezartelako duk, sortu duzuten ghetoa ez duk utzi nahi, itxiitarako berekin duan epeltasuna atsegin zaik nurbait. Nik ere berdin pentsatzen nian, baiñan, berandu bada ere, Bizitza besterik dala oartu nauk. Aide berriek bizi molde berria eskatzen ditek, eta munduaren kontestuan aipatu izan didaken prolema uskeri bat besterik ez duk».

Entzun berri ditudan itzak dituzu hauek, eta nola aurreneko aldia ez dan, orrelako erretolika entzuten asper arraio nagola jakiteaz ez arritu.

Len aipatutako zalakuntzak bere indarra badu eta aintzat artu bearrean gera, baiñan, ala ta guziz ez, ez nago konforme arrozibide obeagoak ematen ez dituzten bitartean. Bitartean geure posturak eta pokabideak uztertzeta onurakorra izango zaikulakoan nago.

Zelakoa da geure errua, nun datza eusko gazte askoen pekatuak?

Bi dira, geure jokabidea kondenuatu dezaketen arrazoiak. Lenengo eusko eikintzaren arrazoibideak, oiñarriztat arkaiztaren ordez ondarra jarria izatea. Bigarrena, naiz arrazoi osoa eduki, gure jomuga eta helburua lortu ezinikoa izatea. Bi alderdi hauek aztertu ditzagun, eta, asteko, lenengo sailleri ekin daogun.

Eusko gazteak eskatzen dutena, nahi dutena, euren burrukarren arrazoia sentidu gabea al da, biotz sentimenduaren fruitu soilla ala geure bizi nahiaren, geure bizibearraren eskakizun baztertu ezinikoa?

Eusko gazteak zelan pentsatzen duten itz gutxitan adierazten erreza danik ez dut uste, persona bakoitza mundu berezi bat gera geure asmo eta kezka desberdinekin. Hemen eusko gaztea esaten dutanean, zera esan nahi dut, eusko prolemataz kezkatutrik bizi dana, klase guztietako aurrerapena maite duana, ots, bere errikideentzat egizko promozioa, langilleentzat (erritasun edo nazionalidadeari begiratu gabe, noski, langille danez zor zaion eskubidea dalako baizik) alkartzeko askatasunaz, baserri eta arrantzaleen prolemataz kezkatutrik bizi dana, zuzentasunezko ekonomi erakundeak sortarazteko buru belarri dabilena, itz batean eusko personaren osotasun egarritz bizi dana. Beharbada baldintza hauek betetzen duten gazte gutxi egongo da askoen usteetan, baiñan gure aitean nunna ikusi genitzazkenak ditugu.

Itxiitara barruan edo kanpuan, ghetoakin edo ghetorik gabe, jatorrizko eskubideak berekin dute indarra bai hemen, bai Madriden bai Kalkutan. Gosea duanak, gose ortaz konturatzan bada beintzat, jatekoa eskatzen du bai beltzak eta bai txuriak, bai europeak eta baita amerikanoak, eta orrelakoari etzaitzela joan filosofia egiaz, itxura txarreko eskubidea dala esanaz, garai hitek igaro zirala aldarrikatuz. Badakigu espirituaeren janaria gorputzarena baiño garrantzitsuago dala, baiñan bigarregoa lenengo odo bete gabe ezin ditek lortu.

Geuri ere berdin gertatzen zaigu, personak izaten jarraitzeko, eusko izateari uko egin gabe noski, zenbati eskubide eskuratu bear ditugu, herri bati dagokion bizitzeko eskubideak bera gogozkoak dituan agintariak, politiku xistima, ekonomi erakundea, kultura t. a. Eusko prolemataz arduraturik bizitzea ghetoan murgildua egotea bada, betoz zorionean lenbatilen ainbeste biotz zabal eta bildu gaiten,

gure nortasuna indartzu, herri bezela ezituz Europari onurakor izango gatzakio. Beraz, puntu hunetan zer esan aundirik dagonik ez dut uste.

Bigarregoa puntuari ekinaz, askoek esaten dute, alegia, arazoi osoa degula baiñan geure ved eeta helburua eskuratu ezinikoa dala, gizadi guzia pamilia baten antzera biltzera goazen une ontan batasun aundiago baten billa joan gindezkeala, baiñan geure posturakin mundua zatitu besterik ez degula egiten t. a. Lastima, da bai pamilia osatzeko gogo gehiegirik ez edukitzea. Dirudunen ondatsunak eta beste ainbeste milioien gosea partituko ezkeroko askoz obetoago giñake.

Zer dira aintzat artu bear diranak ideiak ala personak. Pamilia ez du senditirik personaren onerako ez bada. Herriak ezin dezake pamiliaeren nortasuna, instituzio bezela esan nahi dut, oiñperatu.

Geurea dana eskuratzeko burruka bear da egin, baiñan buruz, taktika ondo aukeratuz, bear diran pausauk emanaz. Herri batek asko lezake, eta gai ontan kanpotik zer ikasia badegu, ez noski derrigorrez bestean atetik jarraitzeko, geuri komeni zaiguna aukeratzeko egokiera izateko baizik. Ditekera gai ontan nere erruz, nere erruz..., esan bear izatea.

Ghetoa baiño askoz okerragoa degu, herriaren bear ainbateko kontzientzirik eza, denon konformismo eta lanerako nagikeri nazkagarria. Hau bai dela ghetoaren baiña gaitz zabaldagoa: euskotar urtean bi edo iru egunean bakarrik izan oi gera. Gañontzeko egunetan ez dugu geure mizitza konprometitu nahi. Ideiez baiño egitez erakusteko prest egotea obeago genduke.

MIKEL UGALDE